

Arturo Campion (1854-1937): Historialaria kontzientzia kolektiboaren sortzaile



EMILIO MAJUELO

Zergatik Campion

Badira historialariak iragana orainarekin lotzen dutenak. Horietako bat Campion da. Ozeano zabal eta sakona den pentsaeraren munduan horrelako pertsonak noizean behin aurkitzen dira. Hauek klasikoak omen dira aspaldiko partez, horrela deitu zaielako horrela ezagunak izan direlako. Batzuentzat, klasikoak, ideia emankorren iturri dira, besteentzat ezinbesteko irakurketa. Klasikoek hausnarketa ugari sorrarazten digute zenbait gai ikasteari ekitean.

Bertute hauek autore klasikoenak badira Campion autore klasikotzat jo behar dugu dohain horiek ere baititu: langile, emankor, landua, lanerako diziplina handikoa, autodidakta zentzu askotan, politikan eskarmentu handikoa, bere lagunen laguna, osasuntsua, sentibera, bidegile, jakitun, gogotsu..., behin eta berriro bere lanetara hurbiltzen garenean zerbait berri, fresku, baliotsu aurkitzen dugu nahiz eta bere idazmoldea agian gaur egun modan ez izan, berak jorratutako gaiak gugandik urrun samar geratu arren edo bere lanen ekarpenak une honetan gainditurik izan badira ere. Orduan zer dela eta Campionen berrikustea?

Dударик gabe bere memoriaren historian erraz aurkituko dugu galdera horri erantzunen dion arrazoirik. Campionen heriotzaren ondoren, 1937tik aurrera bere lanak argitaratzen, itzultzen, irakurtzen eta ospatzen ari direnek Campionen xarmaz non eta zergatik gozatu duten jakitera iritsiko ginateke. Hala ere gure eginbarra ez da oraingo honetan izanen bere lanek utzitako arrastoa historia arakatzea, bera eta bere obra garai hartako testuinguruan kokatzea baizik. Eta bere lanen azterketan zergatik Campion? Galderari erantzuten ahaleginduko gara. Beti ere, jakinda bere lan orokorraren ardatza historia izan zela eta Campionen lan guztia testuinguru historiko jakin baten barnean ulertu behar dela.¹

Campion eta politika

Campioneek berak eta orokorrean bere lan guztiek kutsu politiko nabaria darabilte. Nekez uler daitezke bere pertsona eta bere obra politikatik at. Campionen lanaren zentzua (ez beti edukinak, noski) politikan murgiltzen da. Auzi hau hobeto adierazteko Campioneek izan zituen kargu publikoak aipa daitezke: zinegotzia Iruñeko udalean 1881ean eta 1891n, Espainiako legebiltzarrerako diputatu Nafarroatik 1893an eta azkenik senatari 1918an Bizkaiatik hautatua. Campionen ibilbide po-

litikoak nahiko garbi uzten du bere bizitza publikoa oso luzea eta emankorra izan zela. Dena den kargu publiko horiek izatea ez da garrantzitsuena Campionen lana eta politikaren arteko lotura estua azpimarratu nahi dugunean, hau da, bera eta bere jarduera publikoa agerian utzi nahi dugunean beste zentzu batean proposatu nahi dugu: politikak ez zuen Campionen produkzio intelektualean lehentasunik izan, bere lanen artean politika ez da gairik nagusia, baina Iruñekoaren obra guztia hobeto ulertuko dugu testuinguru politikoa eta jarduera politikoa aintzat hartzen baditugu. Baieztapen horren azpian, hau da, ikuspegi politikoaren lehentasunean, ibilbide politiko eta ideologiko luzea bezain iraunkorrean behin eta berriz konstante bat aurkitzen dugu: fuerismoa, euskal foruen defentsa, nafar foruen defentsa.²

Fuerismoa ez da bakarrik jokatzeko Campionengan eta zalantzarik gabe izen horrek beste terminoak behar ditu, fuerismo adierari bestelako terminoak lotzen zaizkio, azkenean hitz joko bat egiten saia gaitezke Campionen ideologiaren sustraia zein izan zen jakin ahal izateko: fuerismoa eta errepublikanismoa, fuerismo eta integris-moa, fuerismo eta nazionalismoa (esparru politikotik at bereizi ahal badugu ere, fuerismo eta katolizismoa). Hori guztia izan zelako, Campionen bizitzaren ustezko aldiek nahaste-borraste sortu zuten (eta sortu du) bera definitzerakoan. Horixe da bere garaian jaso zituen kritika zorrotzen iturria, hainbat alderditik pasatu izana gaizki ulertu delako. Campionek izandako arazoaren artean ez dugu bere buruarekin izaniko kontradikziorik aurkitzen, ez baitzuen bere burua barne kontradikzioetan inoiz kokatu. Egindako kritika horiei erantzun zuen: «nire erretratoa egin nahi izan dute baina karikatura besterik ez dute marraztu». Aski dugu fuerista eta katolikoa zela jakitearekin Campionen ibilbidea ulertzen hasteko.³

Fuerismoaren inguruan burutazioak azaldu zituenean garbi utzi zuen fuerismoaz zer ulertzen zuen: berarentzat fuerismoa ez zen inolaz ere deszentralizazio administrazioa, karlistek aldarrikatzen zuten moduan. Vázquez de Mella buruzagi eta intelektual tradizionalistari erantzun zionean hausnarketa hau azaldu zuen:

«Espainia –zerbait izatekotan– ez da XV. edo XVI. mendetik hona batasun espirituala eta nazionala duen herrialde bat, hau da, Espainia ez da nazio bat».

Mellaren aburuz Espainiak zituen hainbat sentimentu, usadio, ohitura eta itxaropen komunek Espainia nazioa bihurtu zuten, nahiz eta historikoki Estatu (Erresuma) ezberdin batzuk izan.⁴

Campionen nazioaren izatea bestelakoa zen eta horren ondorioz Espainia nazio batzuen nazioa da, «hau ukaezina da» aldarrikatuko du. Beraz fuerismoa ez da berarentzat izango autonomismoa edo erregionalismoa, fuerismoaren helburua ez delako, aldez aurretik Euskal Herriari kasu, lapurtutako («usurpatu») zenbait funtzioaren itzultzea, Campionen fuerismoa nazio historikoen berrezarketatzat hartu behar dugu. Fuerismoak ez du autonomismo eta erregionalismoa ordezkatu nahi unitarismo erreformaturik sostengatuz. Campionen aburuz karlisten formula «zentralizazio politikoa eta deszentralizazio administrazioa bateraezina da euskal nazionalismoarekin».⁵

Garai hartan horrela azaltzen zuen Campionek bere pentsaera auzi honetaz, nazionalismoa eta fuerismoa gauza bera zirela defendatzen. Campionek 1876an izan zuten lehen agerpen publikoa, eta mende laurdena igarota agerpen horretaz oroitzen zelarik garbi utzi zuen nola urte haietan nazionalismo hitzak ez zuen XX. mendearen hasieran zuen zentzua eta Euskal Herriaren eskubide historikoen berreskurapenaren nahiari, «teknizismo tradizionalatik gure espainetara pasa zen hitza», fuerismoa deitzen zitzaiola. Eta orain oso ezagunak diren hitz hauek:

«Fueristas nos llamamos con orgullo en días de mayores riesgos que los actuales. Puesto que circula un vocablo más gráfico..., continuando mi modesta historia, renuncio al antiguo calificativo, y desde hoy me llamo y llamaré nacionalista».

Gauza bera sostengatuko du 1917an egindako elkarrizketa ezagun hartan (Ojarbide goitzeneko kazetariak Euzkadirako egindakoa). Euskal (nafar-) foruen defentsan behin eta berriro aritu zen, arestian aipatu dugun bezala, ez bakarrik bere jarduera publikoan bere obra osoan zehar baizik.⁶

Politikaren garrantziaz ari garelarik hona beste eztabaida da. Fermín Herranek, El Noticiero Bilbaíno egunkarian, Campionen Blancos y Negros nobelaren kritika literarioa egin zuenean, gutxi gora behera 1898ko otsailean argitaratuta, Campioni leporatu zion gai politikoak lantzeak ez ziola nobela horri edertasun gehiagorik ematen. Campionek bere lagunari erantzun zion garbi uzten zer garrantzia zuen politika sormen lanetan ere:

*«No me explico tu repugnancia a la materia política como objeto de una obra de arte. La política es una de las manifestaciones más vivas e intensas de la vida social. Pocas faunas hay más ricas en tipos. Por eso, se explica que, entre otros, la hayan tomado como asunto de obras de arte Stendhal, Balzac, Claretie, Rot, Cherbulier, Daudet y nuestro Pereda. ¡Y qué diré de la política en nuestro pobre país que ha producido la ruina de los fueros y ahora es el auxiliar más poderoso de la destrucción de la "personalidad" euskara. No hay en este siglo hecho social más granado. Pero hay que utilizarlo o con un espíritu de absoluto desapasionamiento, que es muy difícil de alcanzar en un país donde no se conoce el tipo de literato "puro" (como los Gautier, Goncourt, Baudelaire, etc.) o examinarlo con un ideal más alto, que ha sido mi procedimiento, examinando las fealdades de la política a la luz de la idea de patria».*⁷

Politikaren garrantzia noiztik zetorkion Campioni garbi dago bere lehenengo lanari erreparatzen badiogu. 1876an, Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra argitaratu zuenetik politika konstante bat izanzen da, bere lan askoren ardatza; liburuxka hori politikaz ari da, azken batean lan hori euskal foruen desagertzearen kontrako garrasi mindua da. Campionek eta bera bezalako beste askok ezin izan zuten inoiz ulertu zergatik gobernu zentralak, liberal kontserbadorea zena, zigortzen zituen euskaldun guztiak euskal foruak kentzen, karlisten eta liberalen arteko gerla zibilaren errua eta erantzukizuna euskaldun guztiena bailitzan. Euskal liberalek ezin zuten onartu xehetuak izatea euskal karlistek piztutako gerlarengatik, are gutxiago Campion bezalako liberal hauek gerran pairatutako kalteak eta hondamendiak kontutan harturik.

Consideraciones sobre la cuestión foral... liburuxkak gai politiko bat du oinarri, Campionek gerra bukatu berriaren zergatiak zeintzuk izan ziren aztertzea da lan honen oinarria. Bestelako liburuetan, ez bakarrik gai politikoa ardatza dutenengan, politikaren garrantzia nabarmentzen da.⁸ Horrelakoa ikus dezakegu Víctor Hugo frantzes nobelagileari eskaini zion saiakeran. 1885an argitaratua juxtu Hugo hil zen urtean, saiakera hau hainbat arrazoientatik lan bikaina eta apaigarria da, baina horretaz aparte bere buruarekin zorrak kitatzeko modu bat da liburua, Campionek bere aurreko ideia politikoei bizkarra ematen die, ideia errepublikar eta liberalei bizkarra ematen die. Urte horietan Campionek iritzi politikoaz erabat aldatu zuela jakin gabe nekez uler dezakegu Víctor Hugo saiakeran azaltzen duen iritzi kritikoa. Katolizismoak toki berezia beteko du Campionen pentsaeran, fuerismoak zuenaren parekoa.⁹

Sorkuntza literarioa eta ikuspegi politikoaren uztardura ikus daiteke ere Don García Almoravid crónica del siglo XIII izeneko nobelan (1888); Kontakizuna, Erdi Aroan, Iruñeko Burgoen arteko gerraren garaian giroturik dago (Guillermo d'Annelier, Erdi Aroko poetaren testu originala duela gutxi berreskuratu eta argitaratua izen zena) baina berez azken gerra liberal-karlistaren irakurketa gisa har daiteke ere bai. Nabarrerriako tragedia hura eta garaiko alderdi fueristaren porrot mingarria plano berean ikusten ditu eta horren ondorioz indarrez hustuta agertzen zaigu Campion; Don García Almoravid..., saldukeri edo traizio baten nobela da eta egonezin horren adierazgarri dugu Campionen esaera ospetsu hau:

«las sugerencias que los fracasos del euskarismo elaboraban, revelaron a mi espíritu una verdad cruel y odiosísima: Que los mayores enemigos que los nabarros han tenido y tienen, son nabarros».

Esaldi horrek 1888ko egoerara eramana zehatz-mehatz hau esan nahi zuen: politika 'ultraibérica'tik aldendu gaitzen eta nafar joera batua eta gainerako euskal lurraldeekiko adiskidetza defenda ditzagun.¹⁰

Ikuspegi politiko nabaria da bere lan gehienetan, askotan ez da modu agerikoan azaltzen, baina politikarekin egiten dugu topo idazlanen mamia ulertzen ahalegintzen garenean. Aita Moret-i, nafar erresumako lehenengo kronistari eskaini zion beste saiakera gozo bezain hunkigarrian, (1892an) *Ensayo apologético, histórico y crítico acerca del Padre Moret y los orígenes de la monarquía navarra*, irakurleak testuinguru politiko kontutuan izatea ezinbestekoa du saiakera honen mamiaz jabetzeko.¹¹ Espainiako kronista ospetsua zen aita Mariana, Moret bezala jesuita ere, historialari nafarraren kontra agertu zelarik. Campionek, bi mende beranduago, Moretek azaldu zuen jarrerarekin bat egingo du nafar erresumako historiaren defentsan. Marianak eta Moretek historiak idatzi zuten garaian, Monarkia espainiarra (Europako beste monarkia guztiak bezala) saiatzen ari zen bere baitako zilegitasuna historian kokatzen. Moret «en punto de nación» minduta sentitu omen zen Marianarekin honek euskarari emandako tratamenduarengatik, zeren Marianak berak eta «*otros ingenios de España templados a la peregrinidad, grandes estimadores de de lo que vino de lejos,*

con menosprecio de lo que nació en casa», euskara hizkuntz «zarpail eta baldarra» deitu zuen, euskararen balioa, («memoria venerable de la primera población de España» eta «monumento ilustre de la libertad de ella a pesar de tantas gentes extranjeras y de las más barbaras, que la han pisado») ahaztuz. Moret are gehiago asaldatu egin zen Marianak nafartarren «basatasuna eta arlotekeria» aipatu zuenean nafartarrak godoen kontra aritzeagatik. Godoak Espainiako batasunaren sortzailatzat hartu ziren mende haietan. Moretek garai hartan eta Campionek gero, gotizismo horren kontra agertu ziren Nafarroako (Iruñeko) erresumaren sorrera ezkututzen zelako. Marianaren jarrera deitoratuko du Moretek. Moreti bi mende lehenago gertatu zitzaion bezala, Campioni gertatu zitzaion Borbondarren berrezarkuntzaren urtean, 1876ean, garai hartan gertatu zen euskal nazioaren zilegitasunarekiko borrokak eragin itzela izan zuen Campionengan, bere agerpen publiko eta intelektuala areagotuz.

Politika eta idazlan historikoak oso lotuak izanen dira Campionen amaiera intelektuala iritsi arte. 1921ean eta 1922an artikulu historiko sakonak eta Miguel de Orreagaren Amayur libururako hitzaurrea idazten ari zela edo pixka bat beranduago Nabarra en su vida histórica berridazten zebilela ere ezin bananduzko bilakatuko ziren ikerketa historikoa eta Praderarekin Amaiur oroitarriaren inguruan sortutako eztabaida publikoa.

Politika eta jarduera intelektuala (literatura ala historian) uztartuak agertzen dira edozein unetan ez Campionek gai politiko hutsak lantzen zituelako, bai ordea, uneko testuinguru politikoan kokatuta eta politikaren argira bere obra guztia ulergarriago egiten zaigulako.

Campionen fuerismoa eta historia

Lan guztiei fuerismoaren usaina darie, nolabait Euskal Herriko sistema instituzionalaren defentsa aldarrikatzen baitzuten. Fuerismoa bereziki izan zen bere ildo politikoa, gauzak, egoerak ulertzeko tenorean hor agertzen da Campionen fuerismoa. Orain ez zaigu interesatzen modu zuzenean politikan aritu zeneko gertakariak aztertzea, gauzak honela albo batera utzi behar ditugu bere kargu politiko, diskurtso, artikulu eta batez ere prentsan politikaren inguruan egindako lan erraldoia.

Euskal foruen defentsan ari zelarik historiarekin egin zuen topo. Lehenengo unetan historiak eskaintzen zuen iraganaren informazioa erabiliko du bere lan eta artikuluetan. Eskura zuen bibliografia erabili zuen arazoan analisi garbiak proposatzeko bere idazkera ederra eta gaitasuna agertuz. *Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra* 22 urterekin idatzi zuen, gero euskara ikasteari ekin zion, euskara, bere aburuz, herriaren kultur ondarearen ezaugarriarik nabarmenena baitzen.

Liburuxka horretan bizitza osoko plangintza azalduko digu fuerismoaren defentsaren inguruan eta lanaz lana epe luzean garatuko du. Ez kontzienteki adierazita agian, baina bere lanen egitura azertu eta gero Campionek ikuspegi historiko orokorra zuelakoan gaude. El Genio de Nabarra bukatu gabe utzi zuen 1888aren aldean,

baina liburu horren gaiari berriz heldu zion 1895an *Orígenes del pueblo euskaldun* edo 1912an *Nabarra en su vida histórica* osatuko duten liburuxkak argitaratzen hasi zenean, horietan berriz ere gai horiek (arraza, antropologia, historia) ikus ditzakegu.¹² Gaiokin ez zuen inoiz bukatu, azken bi lan mardul horiek argitaratu eta ondoren ez zituen gai hauek ahaztu eta beste edizio berri eta osatuagoa egiteko asmoz dokumentazio berria kontsultatzen eta informazioa biltzen jarraitu zuen. Helburu honen ondorioz *Nabarra en su vida histórica* lanaren bigarren edizioa 1925an bukatu zuen eta 1929an argitaratu; eta *Orígenes del pueblo euskaldun* lanak hiru liburukietan argia ikusiko du hurrenez hurren 1930an, 1932an eta 1936an. Bere gustoko gaiak hartu, landu baina ez betirako ahaztu, hori zen bere lan egiteko modua, nolabait hasiera hasieratik aukeratutako gaiak denboran zehar zizelkatu zituen, artilearekin lanean ari bailitzan jantzi zabal bat zatika ehundu zuen. Bere obra behin eta berriro eraikitzen eta berreraikitzen ari zela frogatzen duten adibide sobera ditugu eta ez lan handienetan bakarrik xumeagoetan ere bai. Lan intelektuala egiteko modu horri eraikitze iraunkorra dei diezaiokegu.

Fuerismoa, historia, ehulearen tankera, ditugu Campionen lanaren ardatzak ditugu. Iruñekoak lana, oro har, modu berezi batez aurkeztu zuela iruditzen zaigu. Modu berezi horrek zerikusi handia du Campionek zuen beste dohain batekin, musikarekiko zaletasunarekin. Campionen obra guztia musikalki aurkez dezakegu, musika obra bat, bere zati eta erritmo ezberdinekin. Berak inoiz aipatu zuen gauza bera musikarekin izandako harreman estuagatik. Adibide ugari ditugu: behin aipatu zuen Don García Almoravid nobela partitura baten gisara egin zuela; Aita Donostia Campionen «*La Flor de Larralde*» izeneko kontakizun laburra, musikatzeko lanetan ibili zen. Musikazale amorratua izanik, Campionek txistua eta pianoa aski ongi jotzen zuen, zenbait artikuluetan noraino iristen zen musikaren arloko ezagutza garbi azaldu zuen, esaterako Sarasateren lan biografiakoaren hitzaurrean (Altadill izan zen liburu horren egilea), Gaskueren herri musikaren libururako gauza bera egin zuenean edota Azkuek Urlo operaz iritzia eskatu zionean... Musikarako dohaiarekin lotuta musika bailitzan irakur dezakegu Campionen obra osoa, haren ardatza abiapuntu hartuta: fuerismoa eta Euskal Herriko historia. Azken batean bi alderdi hauek bere bizitza osoaren ardatzak izan zirelako.

Berak eraturako Euskal Herriko historiaren proiektua irakurtzen dugun aldiro, lan musikal bat entzuten ari garela ematen du, Bachen fuga bat edo Suite ingelesarekin gertatzen zaigunaren antzera. Zatiak, parrafo eta erritmo ezberdinak, bakarkako ahotsak edo hiru-lauko konpaseko konposizioak, hori guztia obran bertan interpretatu behar dugu, gazte gaztetatik idazten hasi zenetik hil zen arte Campionek egindako lana sinfonia erraldoi gisa entelegatu dezakegu. Hau da, *Consideraciones acerca de la cuestión foral* lanarekin hasi eta *Nabarra en su vida histórica* eta *Orígenes del pueblo euskaldun* obrekin buka, lan horietan aurkitutako leloak eta esaldi musikalak hamarkadaz hamarkada joan dira errepikatzen eta berrantolatzen. Bere lan guztiak, berez, Obra bakar bat da, non osotasuna azpimarratzeko bereizgarria den.

Egoerak ezartzen zion Campioni lan egiteko modua eta maiz bere garaiko erronkei aurre egiteko idatzi zuen. Ikuspegi orokor batetik aztertuak bere lan guztiek ondo marrazten dute euskal historiako proiektu erraldoi bat zuela. Ziur aski ez zen horren jakitun, zeren berak ez zuen aldeaz aurretik egindako gidoi bat jarraitu euskal historiaren sintesi bat idazteko. Dena den, bere artikulu eta liburuek, banan-banan hartu eta beste era batera berrantolatutak, ia ia euskal/nafar historia orokorra adierazten digute. Horrela euskal Historiaurrea eta Antzinako Aroa landuak daude obra honetan, bere aurkibideak arras ongi azaltzen duen bezala: *Orígenes del Pueblo euskaldun*, «I- Testimonios de la Antropología, Etnografía, Etnología y Arqueología. II- Testimonios de la Geografía y de la Historia clásicas. III- Testimonios de la Lingüística»; Erdi Aroko gaiak hurrengo lan hauetan kokatuko genituzke: *Nabarra en su vida histórica*, edo «*Gacetillas de historia de Nabarra*»; horrela ere gertatzen da Aro Modernoko gaiekin: Nabarra.. liburuaren zati handi bat, edota artikulu luze hauek «*Más reflexiones sobre la bula Exigit y más pormenores sobre la Conquista de Nabarra*», «*Reyes de Nabarra en el destierro*», «*Después de la Conquista*». «*La política y el gobierno foral del usurpador*» XVI. mendeari lotuak; azkenik Aro Garaikidean XIX. mendean beste batzuen artean honako lan hauek aipa ditzakegu: *Consideraciones acerca de la cuestión foral...*, «*Acerca del origen y desarrollo del regionalismo nabarro*», «*Carlismo, regionalismo...*». Campionen historiako idazkiaz ikuspegi orokor ez izana faltan botatzen da zenbait autoreengan hutsune horrek haren ekarpenak desitxuratzen dituelako.¹³

Campion historia ikerlaria

Ezaguna denez El genio de Nabarra 1884an argitaratzen hasi 1888an bukatu zuen. Handik urte batzuetara, 1903an, bigarren edizioaren hitzaurrean garbi utzi zuen bere formakuntza intelektualaren gabeziak ezagutzen zituela. Arduratuta agertzen da Campion, El genio de Nabarra 1888an amaitu gabe utzi zuelako, zenbait gai ez zituelako merezi zuten sakontasunez aztertu:

«Tal sucede, por ejemplo, con las cuestiones de la raza y del iberismo, tratadas allí a vuela pluma y aceptando soluciones, no por bien apadrinadas, menos acreedoras de revisión y crítica. Quien se tome la molestia de comparar el aludido capítulo de estos fragmentos a mi voluminoso libro Celtas, Iberos y Euskaros, comprenderá las transformaciones que en la manera de tratar los asuntos habría experimentado El genio de Nabarra por virtud de mis tendencias más realistas y la imposibilidad de conservarle el temple primitivo.»

Aitorpen honek garbi samar azaltzen du Campionek 80.eko hamarkadaren bukaeratik aurrera egindako ibilbide intelektuala. Bereziki nabarmendu behar dugu historiarekiko agertutako jarrera, zeren urte horietan, 1884 inguruan, egindako irakurketek bultzaturik artxibo lanetan buru belarri sartu zen. Jatorrizko dokumentazioa ezagutzearen beharra nagusituko zaio urte horietatik aurrera.

Ikerlari bezala hiru zirkulutan kokatu behar dugu Campion: Europearra, espainiarra eta euskalduna.¹⁴ Ezbairik gabe, XIX. mendeko azken herena, orokorrean, historiako profesionalizazioaren garaia izan zen. Gero eta maizago hermeneutika,

dokumentuen kritika, datuen finkapena, tokian tokiko eruditoen eskuetatik beste batzuen eskuetara pasa ziren. Historia egiteko molde berriak eta historiako aldizkariak lehen baino maizago sortu ziren, historiak gero eta gehiago bereganatu zuen publikoaren interesa. Aspaldi Alemaniatik historiarekiko grina zetorren eta Niebuhr edo Rankeren eragina nabarmen ikus ziteken Europa mendebaldeko gune historiografikoetan. Haiek jorratutako historizitatearen pisua (Herder eta Wilhelm Humboldt horren aitzindari izanik) luze mantendu zen. Frantzian ere etengabean urrats emankorrak ematen ari ziren historiaren inguruan: historialari liberalak, erromantikoak, errepublikanoak... , positibistak beranduago, hauen guztien narrazio historikoez betetzen joan zen XIX. mendea, historiaren mendea. Espainian Escuela Superior de Diplomática izenekoa eta Real Academia de la Historia instituzioei esker historiaren papera klase ertaineko esparru intelektualean joanen da poliki-poliki sendotzen. Mendearen aldaketarekin batera espainiar unibertsitateko erreformarekin Letren Fakultateetan historia irakasten hasiko da eta lehen baino gehiago Europako korrante historiografikoekin harremanetan sarturik. Rafael Altamira, Eduardo Ibarra, Deleito y Piñuela..., historiaren ibilbide profesionalizatuaren aitzindariak izan ziren; azkenean Lehen Mundu Gerraren urteetan Espainiako historiografia aldatzeko prozesua abian zegoen. Horretarako Junta Superior para la Ampliación de Estudios (1910) edo Institut d'Estudis Catalans (1907) erakundeek ikerlari onak lagundu zituzten Europako zentro akademiko ospetsuetara joan zitezten.

Nolabait profesionalizazio prozesu horretaz baliatu zen Campion. Hau da, historia gero eta modu zientifikoagoa idazten saiatu zen beste tokietan egiten hasia zen bezala; inoiz ez zuen gai baten inguruan zegoen bibliografiarik aurreratuenaz ezagutzeko grina galdu: hizkuntzalaritzan, historian edota gizarte zientzietan argitaratzen ziren azken liburuak irakurtzeko beharra sentitzen zuen, esku artean zuen edozein ikerketarako liburu horiek balioa izanzen zutelakoan. Gaztelaniz eta askotan frantzesez, eta inoiz alemanieraz ere, lan egiten zuen (frantzesez ere autore alemaniarren itzulpen asko irakurtzen zituen).

Dena den unibertsitaterik gabe Euskal Herrian historia profesionalizatzeko prozesu hau bestelakoa izan zen euskal lurraldeetan, jakinda ere Espainiako Akademietan (Historiaren eta Ciencias Moralesen deitzen ziren instituzioek historiako zenbait bide aspalditik jorratua zutela) intelektual euskaldun kopuru txikia agertzen zenez handik zetozen ideiak eta planteamenduak ez zirela bereziki zabalduak euskal lurraldeetan Campionek bazuen Akademia haietako lanaren berri baina ez zuen aipatutako erakundeetan lan egitarauan parte aktiborik hartu.

Hau horrela izanik ere, ezin da inolaz ere pentsatu euskal intelektualek, bai orokorrean bai banan-banan harturik, idazteko esparru propiorik ez zutenik. Haien produkzio intelektuala zabaltzeko bideak izan bazituzten nahiz eta Espainiakoekin batzutan bat ez etorri. Euskal intelektualek beste toki askoetako intelektualek bezala aldizkari eta elkarte kultural propioak eratu zituzten, haien artean: «*Comisión de Monumentos Histórico Artísticos de Navarra*» delako Boletina (Academia de Bellas Artes

de San Fernando erakundearen menpe zegoena), «*Asociación Euskera de Navarra*» eta bere aldizkaria *Revista Euskara*, *Revista de las Provincias Euskaras*, *Euskal Erria...*; gero XX. mendean sarturik, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *Euskalerrriaren Alde...* Kultur aldizkari horietan noizean behin euskal historiari buruzko artikulua argitaratzen ziren. Campionek bereziki lan asko argitaratu zuen euskal hedabide haietan kanpoko aldizkari kulturei muzin egin gabe: *La España Regional*, *La España Moderna*, *La Baskonia...*

Espainiako bibliografia eta historialarien lanak ezagutu zituen eta era berean Europako eta Euskal Herrikoenak. Nolabait bere historia lanetan ikus daiteke beste garai bateko historiografiarekin borrokan ari zela Campion. Garai hartan nagusigoa zuten zenbait korrante historiografikoek kontra aritu zen, (batez ere interpretazio liberala deitoratzen zuen, zentralista eta eboluzionista izateagatik) Modesto Lafuentek eta Cánovasek hain ondo ordezkatzeko zuten pentsaera historiografiko liberalaren kontra; Jules Vinson frantzesak eta positibismoa ez zituen ere gustoko. Campionen ustez positibismoak baliorik gabeko historia defendatzen omen zuelako; orokorrean Ilustraziotik sortzen ziren korrante historiografikoak gaitzetsi zituen Campionek eta Humboldt eta batez ere Herderren ideiak abiapuntu gisa hartu zituen kritika hori gorpuzteko.

Dena den, zenbait kasuetan Campionen lan egiteko metodoa eta ikerketa ez ziren kritikatuak pentsamoldeengandik sobera aldentzen: beti zuhurra testuekin eta hauek eskaintzen zuten edukinekin, modu berberaz jokatu zuen klasikoekin, berak maite zituen autoreekin kritiko, ez ausarta, diziplina handiko gizona, oso irakurria eta landua, poliki-poliki historia lantzeko metodoak ere berreskuratu zituen; horrela fitxak, jatorriko testu orriak oharretan aipatzea, erabilitako bibliografia; datu iturri ezberdinaz jabetuta bere interpretazioa ematen saiatu zen; nahiz eta katoliko sutsua izan «creacionismo»-a ez zuen inoiz aipatu bere historiako lanetan historia Bibliaren argitan azaltzeko; autore baten alde onak eta ez hain onak aurkezteko gaitasuna zuen. Honek guztiak Campionen heldutasuna agerian uzten digu. Artxibategiko lana menderatu eta hasi berriak ziren gizarte zientzietako ekarpenak ezaguturik Historia soziala hasi zen jorratzen. Horrela, bandolerismoa, kriminalitatea, herri literatura, hau da, barne historia edo zibilizazioa (modu zabalean historia politikoa ez zena) ikertu zuen eta ahalegin horretatik *Orígenes del Pueblo euskaldun* sortu zen. Garbi gelditu zen historia politikoa ez zela bereziki bere lanen ardatza baina bai historiari zuen kutsua edonon ikus zitezela, bai hizkuntzalaritzan bai gizarte zientzietan edo literaturan. Hau horrela izanik Campionen obra guztia historiarekin lotuta dago eta lan ez historikoetan ere kutsu historikoa nabaria da. Bere Weltanschauung, mundu-ikuskerak, historian oinarritu zuen.

Campionen hastapenak mundu intelektualean

Campionek hogeita bi urte zituen mundu intelektualean murgildu zenean. Dena 1876an hasi zen; urte hartan aurkeztu zuen bere bizitza osoan garatuko zuen egi-

tasmoa, hain funtzeko izan zen aitoren hura non urte mordoa pasa eta gero bere buruarekin hartutako konpromezuaz berdin berdin oroitzen zela. Horren lekuko ditugu 1917an 'Ojarbide' goitzeneko kazetariari Euskadi egunkarirako emaniko elkarrizketa luzea, eta 1930ean Eusko Ikaskuntzak Campioni eskainitako omenaldian jasotakoak.

Liberala zen 1876an, errepublikar federala eta fuerista. Federalismoak kriston garrantzia izango du bere pentsaeran nahiz eta beranduago errepublikanismo eta liberalismotik ideologikoki aldendu. Katolizismoa ezarri zuen liberalismoa eta errepublikanismoaren gaintetik, 1884aren inguruan, eta hartaz geroztik datorkigu Campionek izan duen irudi katolikoa. Gerra liberal-karlista bukatuta *Consideraciones...* liburuxkan bere gogoetekin batera aurkitzen dira berak zituen autore maitatuenak, azken finean beregan eragin handia izan zutenak. Aipamen eta oharren artean honako hauek ageri dira eta hauen guztien arteko lotura Estatuaren Botere erraldoiari egindako kritika da. Tocquevilleren gogoeta errepikakor hau jasoko du:

«cada hombre trae consigo al nacer un derecho igual e imprescriptible a vivir independiente de sus semejantes en todo aquello que solo está relacionado consigo mismo, y a disponer como le parezca de su propio destino».

Horren inguruan Campionek idatzi zuen: «el ilustre Tocqueville (con esa precisión y limpidez de frase que en tan eminente lugar le colocan entre los escritores modernos)», ondo adierazten du Estatuko amarruekin kontuz ibiltzeko, Estatu eta Gobernuaren eskuetan uzten omen zaio:

«todos los fines de la vida humana, y la tendencia a colocar en manos del Estado, por medio de una burocracia omnipotente, y a menudo inepta, todos los resortes de la vida social, [que] crean un despotismo tanto más corruptor cuanto menos violento es, tanto más enervante cuanto más perenne y continuo».

Hauxe genuen Euskal Herriko egoera 1876an, gerra bukatu berria zen eta euskal foru-sistema deusezteko erabakia hartuta, guazak honela egoera deskribatzeko egokia da aipatutako Estatuarekiko beldurra, literalki esanda:

«en las naciones centralizadas, el legislador tiene que dar a las leyes carácter uniforme, que no soportan la diversidad de localidades y costumbres; no estando nunca instruido de los casos particulares, no puede proceder sino por reglas generales; los hombres se ven obligados a someterse a las necesidades de la legislación, porque la legislación no sabe acomodarse a las necesidades y costumbres de los hombres, lo cual es gran causa de turbulencias y miserias».

Tocquevillerekin batera Campionek ongi interpretatu zuen zein zen Estatu libereko prozedura eta hiritarrak eraikitzeke moduak.

Tocquevillerekin ez dira agortzen Campionek erabili zituen federalismoa aldarrikatzeko iturriak. Aipatutako *Consideraciones...* testuan agertzen dira, besteak beste, Édouard René de Laboulaye (1811-1883), poeta, historialaria, idazle politikoa, lege gizona eta 1849an Zuzenbide konparatuko irakaslea Frantziako Collège deiturikoan. Geroago, 1871an, Pariseko Komunako jarraitzailea izan zela dakigu eta Senako Departamentuan Asanblada Nazionalerako hautatua, eta azkenik monarkikoak sutsuki

borrokatu zituen III. Errepublika ezartzeko ahaleginetan. Odilon Barrot (1791-1873), monarkiko konstituzionala, erreformatzailea, geroxeago eraturik izanen zen «ezker dinastiko» horretako kide, gobernu buru enperadorearekin eta beranduago honen kontrako oposizioan, azkenean 1870an Frantziako errepublikako lehenengo lehendakaria izendatuta. Pierre Pascal Duprat (1815-1885), historiako irakaslea, diputatua 1848an eta 1851an erbesteratua, azkenean 1871an berriro diputatua atera zen ezker muturreko hautes zerrenda batean. Heinrich Ährens (1808-1874), militante demokrata eta diputatua Frankfurten 1848an eta filosofia krausistaren zabaltzailea. Frantziar hauek guztiekin batera liberalismoaren ikurra zen John Stuart Mill, (1806-1873), gustora irakurri zuen Campionek. Mill honetaz Isaiah Berlinek idatzia utzi zuen:

«Su vida fue encarnación de sus creencias; su absoluta dedicación a la causa de la tolerancia y la razón fue ejemplar, incluso si se la compara con tantas otras vidas dedicadas a ello como hubo en el siglo XIX».

Herder, Montesquieu eta batez ere Wilhelm Humboldt (1767-1835), euskal hizkuntzaz oso goiz arduratu zena, bere pentsamenduaren zutabe bihurtu zituen.

Horregaitik Campion Europako mundu intelektualetik oso gertu agertzen da. Autore horiekin izaniko zor intelektuala ez zuen gero bereziki gogoratuko (azken azkenean aipatutakoak salbu). Baina ukaezina da pentsamendu arloan errepublikarrek, federalekin, Pariseko Komunako jarraitzaileekin edo iraultzaileekin izan zuen lotura intelektuala sendoa izan zela bere fuerismoaren defentsa sustatzeko unean, fuerismoaren alde federalismoaren bidez.

Ikuspuntu historiografikotik hartuta Campionek konposatu zuen historian garai eta kultura hartako konzeptuak eta kategoriak nahitaez erabili zituen. Eta kategoria horiek erabiltzeak derrigorrez ezer gutxi ikusi behar zuen bere ideologiarekin edo bere gustuekin. Baten ideia politiko eta ideologikoak askotan ez baitatoz bat garai batetan den historiografiaren ildo garrantzitsuenekin. Carrerasek maiz azpimarratu zuen ideia hori: «Autore baten gauzarik txarrena ez da bera ideologikoki dena, baizik eta bai berari bai bere lanari inosatzen zaizkion kategoria historiografikoak». Historiografia liberalak nahiz Ilustrazioaren kontrako autoreek maneiatzen zituzten kategoriak Campionek ezagutu zituen eta kontziente izan ala ez bere idazkietan agertzen dira.

Arestian aipaturiko autore guztiak bat datoz Estuvari dioten beldurra adieraztean. Zentralismoari, Estatuaren kontrolik gabeko botereari beldurra diote. Jarrera hori bat dator bere federalismoarekin eta euskal historiaren interpretazioarekin. Pentsaera horretan arma ideologikoak aurkitu zituen Canovas eta Berrezarkuntza deituriko sistema politikoa kritikaren bitartez hankaz gora jartzeko. John Stuart Mill-ekin ezberditasun itzelak zituen (Mill liberalismoaren ikurra zen eta Campion gero eta konserbadoreago bilakatu zen eta denborarekin ia ia ez zuen harekin ezer ikustekorik); dena den bazegoen bien artean puntu amankomun bat; Isaiah Berlinek idazle honetaz idatzi zuen balorapenarekin ados egonen zen ziur aski Campion:

«siguió creyendo que la felicidad era el único fin de la existencia humana; pero su idea de qué era lo que contribuía a ella fue radicalmente distinta de la de sus educadores, ya que lo que más llegó a valorar no fue ni la racionalidad ni la satisfacción, sino la diversidad, la plasticidad y la plenitud de la vida, la chispa indescriptible del genio individual, la espontaneidad y la singularidad de un hombre, de un grupo, de una civilización. Lo que más odiaba y temía era la mezquindad, la uniformidad, el efecto destructor de la persecución, la opresión de los individuos por el peso de la autoridad».

Biek ere bazuten beste lotura bat, Humboldtten obrari adierazitako miresmena. Horregatik ez zen batere kasualitatea izan Stuart Millek bere *Sobre la libertad* liburua zabaltzean Wilhelm von Humboldtten aipu hau aurkitzea: *«El gran principio, el principio dominante, al que conducen los argumentos expuestos en estas páginas, es la importancia esencial y absoluta del desenvolvimiento humano, en su más rica diversidad».*

Humboldtten garrantziak beste norabaitera garamatza, historiografiaren mundura hain zuzen ere, bere obra (pentsaera eta hizkuntzalaritza arloan kokatzen bada ere) Alemanian sortuko den historizismo historiografikotik hain urrun ez dagoelako.¹⁵ Humboldt Leopold von Ranke historialari prusiarraren maisua izan zen, eta Ranke, jakina, Alemaniako historizismoaren ikurra, hau da Europa osoan XIX. mendean zehar pentsamendu historiografikoaren korronterik nagusia. Gauzak honela ez dugu ahaztu behar ere, Ranke eta beste historialari alemaniarrek Europa osoan historiari diziplina profesionala izateko bultzadarik handiena eman ziotela. Honen inguruan beste aipu bat aldarrikatu behar da: Rankerentzat historia norbanakakoek egiten zuten, historiaren subjektua zirelako; baina norbanakakoek ez ziren gizaki garrantzitsu bakarrak, Estatuak protagonistak bailiran hartzen ditu. Modu parekatsuz Campionen aburuz subjektu horiek herriak eta bere kulturak ziren, hauek «modu naturalean» historiaren eta bizitzaren aniztasuna azaltzen zutelako. Hauek ziren historiaren protagonistak. Rankeren pentsaera ezaguna zen Campionentzat ez modu zuzenean baizik eta alemanieratik frantzesera itzulita izan zelako. Campionen kasuan autore frantsesak izan ziren historialari alemaniak ezagutzeko zubia: Jules Michelet eta batez ere Edgar Quinet (Herderen itzultzailea baitzen) eta Hippolyte Taine. Idazle hauen liburu eta filosofiatik edan zuen egungo kultura europearra.

Campionek *El genio de Nabarra* liburua idazten duenean justu mundu europear horretara eramaten gaitu. Ez askoz beranduago Nabarra en su vida histórica liburua-zen izenburuak garbi adierazten du Nafarroa pertsona (kolektibo) bat bezala tratatu zuela eta orokorrean esan daiteke ere zentzu horrekin idatzi zituela bere lan guztiak. Horregatik Campion ez zegoen oso urrun historizismo historiografikotik, batez ere Euskal Herria edo Nafarroa bere berezitasunean hartu behar zela defendatu zuenean (beste herrialde edo kulturekin egin beharko zen bezala). Nafarroako berezitasun historiko hori Erdi Aroan kokatu zuen, aro horretan Nafarroako erresumako bizitzan Nafarroaren nortasuna aurkitzen zelako. Honek esan nahi du Nafarroak Estatu propio eta sendoa izan zuela mende haietan zehar bere bizitza historikoa berez garatu zuelako. Euskal Herriko historia eta, bereziki, Nafarroako historia osoa maite bazuen

ere, ez zen batere arraro izan garai haietako gaien inguruan lan eskerge burutzea, izan ere Campionen ikerketen zatirik handiena Erdi Aroko historiari lotua baita.

Garai horretan hiritartasun kontzientzia sorarazteko tresnarik erabiliena historia, diziplina historikoa izan zen. Estatu nazionalak eraikitzeke prozesuan gobernuek hiritar kontzientzia sortzeko beharra asetzeko historia tresna politikotzat hartu zuten gobernuek. Beraz Estatu askotako historia ofizialaren sorrera eta Campion bizi zen garaia batera eman ziren; historia nazional bakoitzak bere mitoak eta erreferentzi historizistak zeramatzan eta errelato ofizialari txertatu zitzaizkion. Azkenean Estatu liberalek historian aurkitu zuten elikagaia beraien legitimazio beharra asetzeko. Espainian liberalek nahiz kontserbadoreek gauza bera egin zuten gobernuan egotea tokatu zitzaizkion: Cánovas, Sagasta, eta politikari askok espainartasunari indarra eman zioten Estatu baliabideak hezkuntz sistema osoan aplikatuz. Horrela politikaren bidez historiaren funtzio sozial hori kontsakturik gelditu zen. Campion bat zeterren kontu honetan; berak ere politikoki euskal sentipena sorarazteko garatu zituen tresnak euskaldunei eskaini nahi izan zituzkien; kezkarik gabe hori lortzeko tresnarik eraginkorrena (euskararekin batera) historia zen eta honen inguruan luze hausnartuz bere ekarpenik sendoenak arlo honetan egin zituen. Hau izan zen, ez bairik gabe, euskal nazionalismoaren sorrera modernoa. Beste europarrek eta espainiarrek bezala berak ere lan mardula egin zuen (bai politikan bai kultur arloan) euskaldun izateari eusteko, nazioa (politikoki nahiz kulturalki) eraikitzeke asmoz. Garbi dago lan hori euskal gizarteari begira bideratu zuela eta lanak egin zituela bere nazionalismotik abiatuta. Campionen nazionalismoa ulertzeko nazionalismoaren izate anitzduna kontutan izan behar da (pentsamendu nazionalista zentzu bakarrekoa ez delako), zeren Campion ez zen inoiz independentista izan. Espainian egon nahi zuen eta haren parte izan, (beti ere Espainiak Euskal Herriko erakunde oro errespetatzen bazituen), baina ez zuen egon nahi Cánovasek eraiki zuen Espainian, zentralista eta euskal foruen suntsitzaile hartan. Estatu eredu zentralista edo erregionalista errefusatuz sortu zen bere bide politiko propioa, oinarri sendo bati lotuta: fuerismoa edo nazionalismoa, eta politikan maiz aritu bazen ere beti helburu berbera lortu nahi zuen, hau da, Euskal Herriaren nortasuna berreskuratzea; gizon publikoa izan zen heinean pertsona eztabaidatua eta borrokatzailea aurkituko dugu une eta garai ezberdinetan. Kultur arloan militante sutsua izan zela inork ez du kolokan jartzen. Lan berezia egin zuen, euskal intelektual askok bezala, nahiz eta Euskal Herrian ez izan ez Akademiarik ez Unibertsitaterik ere (gainera Espainiako Akademiak eta bereziki Real Academia de la Historia delakoak eragin gutxi izan zuten euskal herrialdeetan). Horren ordez euskal intelektualek ezagutza arlo askotan bere esparru egokia bilatu behar izan zuten eta bigarren gerra liberal-karlista bukatu bezain pronto jakin mina asetzeko behar zituzten tresnak sortu zituzten: elkarte eta kultur aldizkariak batez ere. Nabarmentzekoa da ikustea zer nolako kultur aldizkariak sortu ziren haustura historiko hartatik aurrera. Arrazoia zuten garai honen jarraipenari (XX. mendera garamatzana), Euskal Berpizkunde izena eman ziotenek, Berpizkunde horren aurrekariak 1876ko belaunaldian

kokatzen baitira. 1876tik 1930era, epe luze horri errapatuz gero Campion agertzen da, nolabait bi belaunaldiak –1876 eta 1900ekoak– ordezkatzuz eta bi belaunaldi horien katebegia izaten, zeren eta autore nafarrak 1876tik hil arte euskal kultur arloan sortu ziren egitasmo garrantzitsuenetan parte hartu baitzuen.¹⁶

Azken hitza

Campionen garrantzia horretan datza, bere lan guztiak fuerismoan –eta kato-lizismoan– oinarritutako irizpide ideologikoen menpe idatzi zituen, testuinguru historikoari bizkarra eman gabe. Lotura hau bereziki azpimarratu behar da, horrek arlo politikora garamatza eta. Espainiako Berrezarkuntza garaian baziren bai liberalak bai katoliko tradizionalak, bai karlistak eta kontserbadoreak, errepublikarrak ahaztu gabe. Hala eta guztiz ere, Euskal Herrian beste bide politiko bat hasi zen jorratzen, politikaren ardatza fuerismoan –edo foruen berreskurapenean– ezartzen zuena. Campionek bereziki urratu zuen bide hori, hasieran fuerismoa errepublika eta federalismoarekin lotu nahian, geroxeago integrismo politikoarekin, azkenean Aranaren euskal alderdiarekin. Honekin batera Campionen ekarpenik nabarmenena garbi agertzen da: Historiak ez du berez sortzen kontzientzia kolektiboa historialariak baizik. Hori historialarien –eta beste batzuen– lana baita. Hori da Campioni zor zaiona. Landutako historia, kultura, hizkuntza eta beste hainbat arloetako gai ei euskal ikuspegia txertatu zien; egindako lanei bere sen nazionalista ematerakoan gaur arte Campionen itzala luzatzen joan da. Baina horren guztiaren hasiera berak 1876ko haustura historikoan bizitutakoan dago. Horregatik bere biografia intelektuala ulertzeko bere garai historikoa ezagutzea ezinbestekoa da. Azkenik Campionen kasua belaunaldi hartako euskal intelektualena da, horiek guztiak betirako markaturik atera zirelako karlista eta liberalen arteko gerraren esperientziatik.

Campionek idatzi zuen hainbat lanetako hildoa erresistentziaren historia da, bere bizitza ere erresistentziaren kontua izan zelako, 1876an sortu zeneko egoeratik 1936ra doana. Bi gerla, bi haustura. Lehenengoarekin haustura sakona izan zen, intelektual espainiar askok bere kontzientzian 1898an jaso zutenaren tamainakoa. Berak horrela azpimarratu zuen une gogor hura eta haren ondorioak:

«Durante siglos, las gentes baskas habían respirado la atmósfera de su historia particular, más o menos infestada de recelos, suspicacias y antipatías mutuas, según los tiempos y las circunstancias: la guerra civil [1872-1876] sometió a la mayor parte de ellas a un avasallador sensorium común. Notable ejemplo de la refracción de efectos dependientes de una causa común: la guerra civil. Proceso de asimilación, fue, al mismo tiempo, proceso de diferenciación».

Campionek –bere belaunaldiko beste batzuekin batera– krisialdi hori interpretatzerakoan ongi adierazi zuen nola sortu zen euskal kontzientzia modernoa. Belaunaldi horrek eskaini zituen zenbait tresna euskal jendeak bere arazo eta bizitza uler zezan, hau da, euskal kontzientzia modernoaren sorrera.

Iruñean 2011-12-07 / 2012-04-30

NOTAS

1. Autore askok azpimarratu dute Campionen garrantzia historia arloan. Haien artean ikerketarik osoena José Javier López Antónen lana dugu, *Arturo Campión entre la historia y la cultura*, Pamplona, Gobierno de Navarra, 1998. Beste batzuek Campionen mundu intelektual joria apaitu dute nahiz eta sistematikoki hori ez landu. Haien artean, Juaristi, Jon: *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*. Madrid, Taurus, 1987; Sánchez-Prieto, José M^a: *El Imaginario Vasco. Representaciones de una conciencia histórica, nacional y política en el escenario europeo 1833-1876*. Barcelona, Eunsa, 1993; Zabaltza Pérez-Nievas, Xabier: *Mater Vasconia. Lenguas, fueros y discursos nacionales en los países vascos*, Donostia, Hiria, 2005.

2. Ikertzeke eta idazteke dago Campionen biografia politikoa honen fuerismo politikoa soberan azpimarratu bada ere.

3. Majuelo Gil, Emilio: *La idea de historia en Arturo Campión*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2011, p. 21. Edizio digitala: eusko-ikaskuntza.org/es/publicaciones/coleccion/monografias/eusko

4. Campionek gazte gazte zenetik beti deitoratu zuen karlismoa. Bigarren gerra karlista-liberalak kriston eragin txarra utzi zuen Campionen belaunaldikoan artean.

5. Campión, Arturo: «Nacionalismo, Fuerismo y Separatismo. Conferencia dada en el Centro Vasco de San Sebastián el día 7 de enero de 1906», in *Lan Orokorrak, Discursos políticos y Conferencias*, Pamplona, Mintzoa arg., 1985, XIII liburukia, 263. orri.

6. Mugica, Gregorio, «Ojarbide»: *Los titanes de la cultura vasca*, San Sebastián, Auñamendi, 1962.

7. Herrán, Fermín: «Blancos y Negros. Novela de Arturo Campión». Arturo Campionek Herrán-i *El Noticiero Bilbaino* egunkarian erantzun zion 1898ko martxoan. Campionek bere artxibategian *Blancos y Negros* nobelaren inguruko dokumentu eta guttun sorta hau gorde zuen. Nafarroako Agiritegi Orokorra (NAO), C-33157.

8. Campion, Arturo: *Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra*, Madrid, Gregorio Justeren inprimategia, 1876.

9. Campion, Arturo: *Victor Hugo. Semblanza*, Tolosa, Eusebio López arg., 1885.

10. Nobela horretan garbi adierazten du 80ko hamarkadan pairatzen ari zen giro politikoaren ondorioak. Nafarroako Euskeraren Elkartea, 1877an sortutakoa

Euskal kultura defendatzeko asmoz, indarrrik gabe bizirauten ari zen. Hasieran zenbait liberalek elkartean parte hartu bazuten ere, handik urte gutxi barru alden du ziren, eta beranduago haien atzetik karlistak zirenak ere bai. Elkartearan lan-jardueran bai Campion bai Iturralde y Suit nahiko bakartiak sentitu ziren; egoera honen aurrean elkarteko aldizkaria zen *Revista Euskara* erredakzio lanak ezin eramanez haien ardura utzi behar izan zuten. Giro ezkor horretan sartuta *Don García Almoravid* nobela idazteari ekin zion Campionek.

11. Campion, Arturo: *Lan Orokorrak, Mosaico histórico* (II), Pamplona, Mintzoa arg., 1984, VI liburukia, 21-202. orri.

12. Liburu horiek, garaian ohikoa zen moduan, atalka argitaratzen ziren egunkari edota kultur aldizkarietan. Beranduago liburu moduan argitaratzen ziren.

13. Kontu honetan kasurik nabarmena Mari Puy Huici historialariarena da; bere ustez Campionen izate nazionalistak balio gabetuko zuen honek egindako ikerketa lana. Astakeri honen ondorioz XIX. mendeko historialari guztiak bazterturik izan beharko ziren. Ikus, *En torno a la conquista de Navarra*, Pamplona, 1993.

14. Gai honetarako ikus, Emilio Majuelo: *La idea de historia en Arturo Campión...*, liburuko atal hauek: «A las puertas de Clío», 189-212 orri., eta «Ante la historiografía española», 212-223 orri.

15. Euskal kulturarako Humboldtten garrantziaren seinale gure artean izaniko hartze zabala dugu. Monografia askoren artean bakarrik aipatzen ditugu azken bi emanaldi hauek: Zabaleta-Gorrotxategi, Iñaki, *Wilhelm von Humboldts Forschungen über die baskische Nation und Sprache und ihre Bedeutung für seine Anthropologie*, Bilbo, EHU, 2006 eta Azurmendi, Joxe, *Humboldt: Hizkuntza eta Pentsamendua*, Bilbo, Euskal Udako Unibertsitatea, 2007. Humboldt Rankeren maisu aipua in Juan José Carreras, *Seis lecciones sobre historia*, Zaragoza, Fernando el Católico Erakundea, 2003, 30 orri.

16. Honetarako egokiak dira Bernardino Estellakoak Campion zaharrari eskainitako hitzak: «Las actuales generaciones vascas vivimos en pleno florecimiento. En ningún siglo de historia de nuestra nacionalidad se ha trabajado como hoy para conservar, aumentar y fortalecer lo que constituye nuestra alma, la esencia de nuestra civilización...». «A Don Arturo Campión en el ochenta aniversario de su nacimiento.» *Euzkadi*, 1934.05.06.

RESUMEN

En el presente artículo el autor sitúa la obra histórica de Arturo Campión en su contexto, la visión del mundo que nos ofrece en toda su obra esta basada en la historia. La actividad política de Campión no puede ser entendida sin analizar sus estudios sobre fuerismo e historia. El autor profundiza en dos aspectos primordiales para comprender la aportación de Campión. Por un lado, nos ofrece una imagen del Campión investigador y por otro desgana las influencias intelectuales recibidas por el iruinseme en su formación como historiador. No podemos entender sus escritos sin conocer la influencia que la lectura de Herder, Ranke y Humboldt, entre otros, tuvo en su pensamiento e investigación histórica. El autor remarca que Campión realizó este trabajo sin dar la espalda al contexto histórico que le tocó vivir.

LABURPENA

Egileak Arturo Campionen historia lanak idazlea bizi zuen testuinguruan kokatzen ditu. Egilearen aburuz Campionen mundu-ikuskeraren oinarrian historia kokatu behar dugu. Bestalde Campionen jarduera politikoa ulertzeko fuerismoa eta historiaren inguruko bere lanak ezagutu behar ditugu. Eginkizun honetan, egileak bi funtsezko ezaugarri azpimarratzen ditu, alde batetik, Campion ikerlaria ulertzea eta bestetik historialariak jaso zituen eraginaren ezagutzea. Herder, Ranke eta Humbolten irakurketak antzematen dira Campionen idazkietan. Egileak behin eta berriro azpimarratzen du Campionek garatu zuela bere lan intelektuala bizi zuen garaiari bizkarra eman gabe.

ABSTRACT

In this article the author places the historical work of Arturo Campion in context. The worldview offered in all his work is based on history. Campion's political activity can not be understood without analyzing their studies on «fuerismo» (regional laws and customary autonomy) and history. The author explores two key aspects to understand the contribution of Campion. On the one hand, he gives us a picture of Campion as an investigator and, on the other hand, he analyses other intellectual influences received during his training as a historian. We can not understand his writings without knowing the influence that reading Herder, Ranke and Humboldt, among others, had in his historical thinking and research. The author remarks that Campion did this work without giving back to the historical context in which he lived.